

Imanol Murua Arregi

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1935-2008)*

Aurkibidea

Biografia



Azara kalean jaioa, gerora
Agerreson bizi izan zen.
Ezkondua. Zarauzko alkate izan
zen eta diputatu. Arrantza eta
itsasoa ere asko gustatzen
zaizkio.

Zintak

ZAR-033

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Data:** 2005-05-31
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZAR-034

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Data:** 2005-05-31
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Jaio zeneko anekdota; Pagoetako gurutzea

- **Erref:** ZAR-033/001
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Imanol Murua Arregi, 1935ean jaio zen. Pagoetako gurutzea jarri eta hurrengo goizaldean jaio zen. Bere aita ibili zen gurutzea jartzen eta semea jaio behar zelako alde egin beharra izan zuen.

2. Umetan amonarekin Agerreso baserrira

- **Erref:** ZAR-033/003
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaian, aita soldadu joan zen; eta ama, bi anaia zaharragoekin, Gernikara. Urtebete zuenean, Agerreso baserrira joan ziren bera eta amona, han senideak zituztelako. Agerreso San Pelaioiko mugan zegoen.

3. Eskola utzi behar izan zuen operatu egin zutelako

- **Erref:** ZAR-033/004
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:05:54. **Bukatu:** 00:10:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Eskolan lehenbizi "txapel-haundi"-etan hasi zen. Etxean dena euskaraz egiten zuen arren, mojek erdaraz irakasten zieten. Eskola utzi egin behar izan zuen arazo bat zuelako mokorrean eta operatu egin zutelako. Errekuperatzeko bi urte egin behar zituen ohean eta amonak gurgildun ohean ateratzen zuen kanpora.

4. Gerra garaiko bizipenak

- **Erref:** ZAR-033/005
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:10:12. **Bukatu:** 00:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Aita gudari joan zen gerra garaian; eta ama, bi seme nagusiekin, Gernikara joan zen. Gernikako bonbardaketetan, udaletxe azpiko babeslekuan gordeta egon ziren. Gerora, aita Santoñako kartzelara eraman zuten: bi semeak Ingalaterrara bidali zituzten, eta ama Iparraldera joan zen.

5. Bere anaien itzulera Ingalaterratik

- **Erref:** ZAR-033/006
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:12:48. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Bere bi anaia nagusiagoak Ingalaterratik etorri zireneko oroitzapena du. Nola gogoratzen duen une hori.

6. Gosea asetzeko lapurretak

- **Erref:** ZAR-033/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Beraien jolas-lekua kalea zen. Bazkalostean, mendira joaten ziren lapurretara, gosea zuten eta. Koadriletan ibiltzen ziren eta hainbat ariketatan elkarren kontra aritzen ziren.

7. Boxeoa jai guztietan

- **Erref:** ZAR-033/010
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:19:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Boxeoa

Laburpena:

Herriko festa gehienetan izaten ziren boxeoa lehiaketak eta beraiek boxeatzeko zuten konbatearen aurretik.

Transkripzioa

- Eta boseuan berriz, hemen, hemen mutil-koskorak, hondartzan ta. Geo, herriko festetan jartzen ziguen guri telonero bezela aurretik, eta jendiak pentsatzen det, nahiko parre ingo zula, zeatikan nik hamahiru urtekin, uain'e txikiya naiz, hamahiru urtekin atea zazu kontua nolakua izangon nitzan. Eta aurrenengo konbatia gu izaten giñan. Ta orduan festa danetan izaten zian boseokokonbatiak eta. San Pedrotan Oriyon ta Zumaian, ta San Pelaiotan hamen, beti izaten giñan gu. Ta, behintzat, ni gogoratzen naizela, lau, lau aldiz boseatua naiz hola, riñian publikuan: San Pelaion, Munuan, Oriyon ta Zumaian, ni akordatzen naizela, e. Geo, bueno, geure kuadrillan arteko konbatiak eta ixtoriyak kontatzen hasten baldin bagea, jode, ixtori pilla earra, ixtori pilla earra badao hor.

8. Gerraosteko giro erdalduna eskoletan

- **Erref:** ZAR-033/011
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:19:12. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Gerraosteko giroa oso erdalduna zen. Mutilek euskaraz egiten zuten elkarren artean, baina neskek erdaraz. Eskoletan ere giro erdalduna zegoen, irakasle gehienak kanpokoak ziren eta. Eskolatik formatuta irteten ziren kalera eta "arriba España" esan.</p>

9. Boxeorako non entrenatzen ziren

- **Erref:** ZAR-033/012
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:24:10

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Boxeo

Laburpena:

<p>Boxeoan jokatzeko egiten zituzten entrenamenduak. Giro ona zenean hondartzan eta bestela "zimitaioan" entrenatzen ziren; hobeak zirenak 'Círculo'-ko ring-ean edo Hotel Miramar-en. Amak animatu egiten zituen edozein kirol egiteko, baina boxeatzeko ez zion uzten eta ezkutuka ibiltzen zen.</p>

10. 8 urterekin lanera

- **Erref:** ZAR-033/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:24:10. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Aitari soldata erdia kentzen zioten kartzelan egon zelako. Etxean beharra zegoen eta 8 urterekin golf-era joaten zen lanera. 10 urtetik 12ra bitartean kadi lanean aritzen zen.

11. Neguan kalean eta udaran San Pelaion

- **Erref:** ZAR-033/014
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:28:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Neguan kalean egiten zuen bizimodua, eskolara bertara joaten zelako eta hango kuadrilla zuelako. Baina udaran San Pelaio aldean ibiltzen zen. Golfean aritzen ziren Mendilautan.</p>

12. Golf-eko lexikoa

- **Erref:** ZAR-033/016
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:35:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Golf-era sartzen zirenak lehenbizi teniseko pilotak jasotzen aritzen ziren. Golf-era sartzen zirenak lehenbizi teniseko pilotak jasotzen aritzen ziren. Tenisean erabiltzen ziren hitzak ingelesekoak ziren. Golf-eko makilari "anikotia" deitzen zioten. Gehienbat ingelesetik hartutako hitzak erabiltzen ziren.

13. Pilota-jasotzaile eta kadien lanak

- **Erref:** ZAR-033/017
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:35:24. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

<p>Golfean pilotak jasotzeko lanean aritzen zirenek zer lan-mota izaten zuten azaltzen du. Kadiak egiten zituzten lanak. Kadi on batek aholkuak eman behar dizkio jokalaria. Lanbide heziketan hasi zenean utzi zion golfeko lanari.</p>

Transkripzioa

Rekojepelotas ibiltzen nintzanian, hasi goizeko zortzitan edo beatzitan. Aurrena in behar izaten nin tenisa markatu. Oseake hango bertako langilliekin-ta lagundu markatzen. Egunero-egunero markatzen huan, zeatikan oain dagon lurra zea hori, bestela egunez ibili eta borratu iten dek /itek/ hori, eta egunero hori markatu. Eta gero pelotak jaso, egun guziyan han, ordu pila bat. Eta gero pixkat... Hori rekojepelota nintzanian. Gero kadi nintzanian, poltsa bizkarrian hartu eta, ba, lagundu. Hor iten duena, profesion... Geo, ba, pixkat hi ona baldin bahaiz o ikasten baldin badek o zea, izate haiz, kadiya izaten dek ez poltsa eamateko bakarrik, dek jokariyan asesoria izaten dek kadiya, ona baldin bada. Jolariyai esan ber tziok ze makil jokatu ber dun, green-an daonian noa jo ber dun patak eroitzeke. Kadi onak izan behar du asesore. Horreatikan hoinbeste pagatzen diyoe hor. Nahiz profesionalak izan, aldamenian kadi ona eukitzia oso inportantia da, zeren bera dudan baldin badao, jokalaria dudan baldin badao, kadiyak dudik ez du in ber. Kadiyak, ekibokatzen baldin bada ere, esan ber diyo dudikan gabe. Zeatikan bestia dudan baldin badao eta kadiya ere dudan baldin badao, buruan dudan jokatzin ai baldin bada, ziur edo probalidade haundiya dao golpe bat faillatzeko edo behar bezela ez jotzeko. Oseake gauza bat inportantia da jokalaizantzako seguridadiakin jotzia. Eta gero noizian behin gertatzen da "Aiba dios, ekibokatu in nauk makillakin, fuertegi jotzeko makilla". Orduan "viene la bronca", kadiyak eman baldin badiyo hori, ba... Eta hori beaizantzako... Baiña zaila da ekibokatzia, profesionalak-eta ya oso... baiño batzutan haizia alde daolako edo zea daolako batzutan pasa iten dia edo motz gelditu, nahiz ondo jo. Hori oso inportantea da hauentzako, hoinbeste diru jokatzin dituen... Guretzako... guretzako oso inportantia zan! Ez guretzako, señoirituantzako, jokatzin zun señoiritua edo señoiritantzako. Guk haiei señoiritua eta señoirita esaten giñan, e! Eta hori, ba, ni kadi izan nit... oseake, rekojepelota bi urtian izan nitzala zortzi eta beatzi urtekin eta kadi lau urtian hamar, hamaika, hamabi, hamahiru. Lau urtian. Gero ya lanbide heziketan hasi nintzanian udaran tailler batea jutun nituan, praktikak ikastea. Behin lanbide heziketa hasi nintzanian. Bueno, orduan ez golfeari bakarrik Aste Santuko oporretan ni...

14. Futbolean non aritzen ziren

- **Erref:** ZAR-033/019
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:39:06. **Bukatu:** 00:39:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Parrokia aurrean zegoen futbolean aritzeko leku ona, baina aguazilek ez zieten uzten. Klean ibiltzen ziren, kotxerik ez zen pasatzen eta.

15. Arrantzara goizeko 03:00etan jaikita

- **Erref:** ZAR-033/020
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:39:58. **Bukatu:** 00:42:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak

Laburpena:

<p>Bere aita txipiroitara joaten zen goizeko 03:00etan jaikita. 06:00ak alderako etorri eta 08:00etarako lanera joaten zen aita. Lana bukatutakoan berriz arrantzara. Txipiroiak saldu egiten zituzten gero. Ama ere han eta hemen aritzen zen lanean.</p>

16. Mutikoen lanak

- **Erref:** ZAR-033/021
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:44:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Mutiko gehienek han edo hemen lan egiten zuten udaran, beharra zegoen eta.

17. Arrainen izenak; txaluparen zatiak

- **Erref:** ZAR-033/022
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:44:12. **Bukatu:** 00:46:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Arrainak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Arrain txikien izenak: kabrak, donzeilak, karraspioak, durdoa... Lehen neguan ez ziren itsasora ateratzen. Lau txalupa motordun bakarrik zeuden; norenak ziren. Txaluparen atalak: tosta, karela, branka...

18. Itsasoaren egoerarekin lotutako lexikoa

- **Erref:** ZAR-033/023
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:46:42. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Itsasoaren mugimenduei emandako izenak: itsaso handia (mar de fondo), itsaso barea. Kanpoko haizeak aztoratutako itsasoari "haize-olatua" deitzen zioten. Haizeak sortutako zuri-uneei "katxopa" deitzen zaie.

19. Arrantzarekin lotutako lexikoa I

- **Erref:** ZAR-033/025
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:50:12. **Bukatu:** 00:51:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Euskara » Lexikoa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Bakoitzak zituen trukuak arrantzarako. Oliotan bustitzen zuten batzuek "koaña". Frogak egiten ibiltzen ziren nola harrapatu gehiago.

20. Arrantzarekin lotutako lexikoa II

- **Erref:** ZAR-033/026
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:51:27. **Bukatu:** 00:54:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak

Laburpena:

Lexikoa: aingura, estatxa, panelak, lema, koasta... Arrantzaren arabera "aizar" desberdinak erabiltzen dira. Aitak bertso zahar ugari zekizkien eta anaia guztiek ikasi zituzten horietako zenbait. Koruan ere ibiltzen zen, baina ez zuen bat-bateko bertsorik botatzen.

21. Aita lanean ere bertso-kantari

- **Erref:** ZAR-033/027
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:54:08. **Bukatu:** 00:58:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak

Laburpena:

<p>Aitak bertso zahar ugari zekizkien eta anaia guztiek asko ikasi zituzten. Koruan ere ibiltzen zen, baina ez zuen bat-bateko bertsorik botatzen. Aita ebanista zen eta Arruti lantegian egiten zuen lan muntatzaile gisa. Zarauztik Madrilera bide guztian bertsoak abestuz joaten omen zen.</p>

22. Aitarengandik ikasi zituzten bertso zaharrak

- **Erref:** ZAR-033/028
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:58:00. **Bukatu:** 00:59:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Aitarengandik ikasi zituzten bertso-zaharrak lau anaiek. Bertso sentimentalak eta aberriaren aldekoak gustatzen zitzaizkion aitari, gehienbat Otañorenak, Xenpelarrenak eta Bilintxenak.</p>

23. 'Xalbador' eta Mattin Zarautzen

- **Erref:** ZAR-033/029
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:59:06. **Bukatu:** 01:00:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Xalbador eta Mattin hegoaldera lehenbizikoz Zarauzko jaialdi batera etorri omen ziren. Bera oroigarriak eramatera joan zen eta eszenatokian egon zen eserita saio osoan.</p>

24. Lehia Cachi Bachi eta Klub Deportiboaren artean

- **Erref:** ZAR-033/032
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:03:14. **Bukatu:** 01:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola
- Aisia » Kirola » Boxeo

Laburpena:

<p>Cachi Bachi elkarteak kuadrilla batetik sortu zen. Kuadrilla bakoitzak izen bat izaten zuen. Kirol batzuk Klub Deportiboarekin egiten zituzten eta beste batzuk Cachi Bachirekin, eta pikea izaten zen beraien artean. Cachi Bachi boxeoa nabarmendu zen.</p>

25. Kuadrillak eta kirol elkarte edo taldeak

- **Erref:** ZAR-033/034
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:06:38. **Bukatu:** 01:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Gazteen sarea kuadrillek osatzen zuten eta kuadrilla horiek Klub Deportiboaren eta Cachi Bachiren bitartez bideratzen ziren kirolek. "Aitzaki" edo "Mollarri" ere futbol taldeak ziren, baina koadrilek sortuak, federatu gabeak. Koadrilen bihurrikeriak.</p>

26. Garai bateko Zarauzko lasterketak

- **Erref:** ZAR-033/035
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:08:40. **Bukatu:** 01:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Berak ez du korrika-apusturik ezagutu, baina aitak bai, eta baita herriko lasterketetan parte hartu ere. Apustueta ibili izan den jendea. Bere garaiko herriko lasterketak. Kanpora ere joaten ziren.

27. Korrika egiteko abasketak kendu

- **Erref:** ZAR-033/036
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:11:10. **Bukatu:** 01:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Abasketekin ibiltzen ziren eta, sarritan, ez bustitzearren, haiek kenduta egiten zuten korrika. Abasketak non erosten zituen. Zapata dendarik ez zen orduan.

28. Donostian "boronos" deitzen zieten

- **Erref:** ZAR-033/037
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:12:25. **Bukatu:** 01:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Zarautz ingurutik bederatzi lagun joaten ziren Donostiara Lanbide Heziketara eta "los boronos" deitzen zieten euskaraz hitz egiten zutelako.

29. Elizari lotutako gazte-taldeak

- **Erref:** ZAR-033/038
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 01:13:58. **Bukatu:** 01:17:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

"Juventud Parroquiana" eta "Juventud Antoniana". Hasieran "Juventud Parroquiana"ko zuzendaritzan egon zen, baina 19 urterekin Antonianoetan sartu zen eta juntan sartu zuten. Fraideak eta apaizak ez ziren ondo konpontzen, baina gazteek lortu zuten bi gazte-taldeak elkartzea.

30. Ezkondu ostean guraso elkarteko kide

- **Erref:** ZAR-033/039
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:17:52. **Bukatu:** 01:19:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

Guraso elkartean sartzeko eskatu zioten ezkondu eta gero. Etxea zenbat pagatu zuten eta zenbatekoa zen bere lehendabiziko soldata.

31. Ama Birjinetan egiten ziren trainerillen lehiak

- **Erref:** ZAR-034/002
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:02:02. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Bera gaztea zela Ama Birjinetan Zarauzko trainerillen lehia jokatzeko zen eta trainerilla onenak etortzen ziren. Lehia horretako batean ekaitza etorri eta asko ez ziren iritsi. Honen inguruko kontakizunak.

Transkripzioa

- Geo, nik ez dakit, e, ziur... Nik hamasei urte nazkan edo hamazazpi

nazkan, baiño hola, holakon bat, hamasei edo hamazazpi. Orduan nik hamazazpi baldin banazkan, ba, berrogeita hamabi berrogeita hamarkadako aurrenengo o bigarrenengo urtia, berrogeita hamaika, berrogeita hamabi, hori egunkaritan eongo da. Orduako Zarauzko Ama Birjiñetan, trainerilla estropada izaten zan, oso, oso famosua, e! Nik uste det Kantauri guztikoko famosua zan Zarauzko trainerilla estropada hura, orduan Ama Birjiñetan iten zana. Este... danak etorri, zeakuak, Kantaurikoko zeaik, e, trainerilla inportantienak etortzen, onenak etortzen zian, danak, e! Santanderinuak eta danak, Ciervana... Ciervana, osea, bizkaitarrak, eta geo kantabriakuak, eta... Bueno, trainerilla onenak etortzen zian honea. Hau zan, nola da, Kontxa, zea, [triñeoko] estropadantzako. Ba, hau zan trainerilletako estropadako Kontxa garai hartan. Igual esajeratua iruituko zaizue, baiño ez zait iruitzen. Osea, onena zan. Ta prueba zan etortzen ziala tripulaziyo danak. Eta orduan, ba, zeon, bi klub zaben Zarautzen, estropan, arraunian ibiltzen zianak. Beste zenbait kasutan bezela, Club Deportivo Zarauz ta Cachi Bachi. Biyan artian trainerillako, trainerilla bat oso ona ateako zuen. Baiño zatituta, beti bezela, ba, hain ona ez. Ta nahiko, nahiko eskasa bestiakin konparatuta, vamos. Eta bi [...]. Ta urte hartan Club Deportivok atea zun bigarrena, gaztiena. Club Deportivo Zarauz A eta Club Deportivo Zarauz B, ta gaztietan gu giñan. Ta gu, esaten dizut, ni atletismon ta korrika ta boseuan Cachi Bachikin ibiltzen nitzala, baiño nola zea, Club, esto..., B, osea, gaztiena Club Deportivok atea zun, ba gu Club Deportivokin atea giñan. Eta, estropada hartan gertatu zan, nik uste det aurrenengo bi egunetan izaten zan, aurrenengo estropadan ekaitza ekarri zun, ta trainerilla pilla bat hondoa jun zian. Eta ailleatu giñan, ailleatu giñan hiru bakarrik zeara. Gure, gure tanda hortan ekaitza ekarri zun tanda hortan. Eta hiruen artian gu giñan, osea, eta argazki hori're ez det billatu. Ailleatu giñan moilla, patroia gure kuadrillakua zan, Alvaro Azpeitia. Ta beste bi arraunian. Beste danak, guriek'e putzua, urez betia zalako. Eta, orduako trainerillatako estropada hura, baiño oso famosua izan zan, e! Ta oso famosua izan zan, zeatikan ekaitz hura ekarri zulako ta, bentajak'e haundiyak... Eske ez zeate... Ekaitza tanda batei bakarrik tokatu zitzaion, ta. Bueno izan zan estropada bat... Hondoa jende pilla bat, eta, ez dakit dirutan ta o ez zian, baiño trainerilletako zea, fasia.

32. Kale izendegiaren aldaketak

- **Erref:** ZAR-034/007
- **Iraupena:** 0:05:20. **Hasi:** 00:12:52. **Bukatu:** 00:18:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bera udaletxean zegoenean nola berreskuratu zituzten kaleen izen zaharrak. Kale berriei nolako izenak jarri zizkieten. Komisio bat antolatu zen lan honetarako.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com